



Azalpena

KIROL PROBAK

Baimenaren xedea: Bidea erabiltzea, antolatutako lehiaketako kirol-probak egiteko.

Organo eskuduna: Trafikoko lurralde-arduradunak, proba osoa EAEn barruan egiten bada, eta hasi ere lurralde-eremu horren barruan hasten bada.

Izapideak:

1. Dagokion trafikoko lurralde-arduradunari zuzendutako baimen-eskaera. Proba antolatuko duen erakundeak aurkeztu beharko du baimen-eskaera hori gutxienez proba egin baino 30 egun lehenago, eta dagozkion agiriak erantsi beharko ditu.
2. Dagokion tasa ordaintzea. Ordainketa-gutunarekin egingo da, Interneten bidez (www.euskadi.net/nireordainketa), Zuzenean-en bulegoetan edota finantza-erakunde hauen bulegoetan:
 - Kutxabank (Kutxa, BBK, Caja Vital Kutxa)
 - Caja Laboral Ipar Kutxa
 - BBVA
 - Santander
 - **Sabadell** Guipuzcoano
 - "la Caixa"
 - Bankia
 - Bankoa

Nahitaezko txosten lotesleak:

- Bidearen titularra.
- Ertzaintza.

Ebazpena: Ebazpena eman eta eskatzaileari jakinaraziko zaio.